

FAKULTATEKO OHIKO BATZARRAREN AKTA **(2022ko maiatzaren 31)**

Bertaratuak eta bertaratu ez direnak (IOAren 22.2 art.)

Dekanotza Taldea

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban – Idazkaria
3. Doblas Pozo, Patxi – Dekanordea
4. De la Peña Varona, Alberto – Dekanordea
5. Casado del Río, Miguel Ángel – Dekanordea (ezin etorria adierazi du)
6. Ayestarán Varza, Alazne – Dekanordea

Administrazio burua

7. Asensio Espina, Kizitiñe (ezin etorria adierazi du)

IRI iraukorrak

8. Davila Legeren, Andrés (ezin etorria adierazi du)
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael (ezin etorria adierazi du)
11. Novo Arbona, Ainhoa (ezin etorria adierazi du)
12. Ganzabal Learreta, María
13. Lavia Martínez, Cristina
14. Antolín Iria, Enrique
15. Ispizua Uribarri, Marian (ezin etorria adierazi du)
16. Amurrio Vélez, Mila
17. Miguel Saez de Urabain, Ainara
18. Pérez Da Silva, Jesús Ángel
19. Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo
20. Camacho Markina, Idoia
21. García Ureta, Irene
22. Usín Enales, Sandra (ezin etorria adierazi du)
23. Blas Mendoza, Asier (ez da bertaratu)
24. Otero Gutiérrez, Beatriz
25. Beaskoetxea Gangoit, José M^a
26. Martínez Herrero, M^a José
27. Orueta Estívariz, Gorka
28. Mendiguren Galdospín, Terese
29. Tellería Herrera, Imanol (ezin etorria adierazi du)
30. Lazcano Brotons, Íñigo (ez da bertaratu)
31. Larrondo Ureta, Ainara

Beste IRI batzuk

32. Zabalondo Loidi, Beatriz
33. Iturbe Tolosa, Andoni

AZP-KO LANGILEAK

34. García Vázquez, M^a José (ez da bertaratu)
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander (ezin etorria adierazi du)
37. Laniella Fernández, Igor
38. Arandia Urriaga, Igone

Ikasleak

39. Rino Pardo, Celia (ez da bertaratu)
40. Figueroa Hernández, Agustina (ez da bertaratu)
41. Eriz Ávila, Lorea (ez da bertaratu)
42. González Cortes, Álvaro Alejandro (ez da bertaratu)
43. Lakuntza Bakaikoa, Mikel Adur (ez da bertaratu)
44. Apaolaza López, Naroa (ez da bertaratu)
45. Eizaguirre Aramendi, Julen Lur (ez da bertaratu)
46. Martínez de Albéniz Casales, Ainara (ez da bertaratu)
47. Amuskibar Sarasua, Ekai (ez da bertaratu)

2022ko maiatzaren 31n, asteartean, 10:00etan, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarra bildu da ohiko deialdian, bigarren deialdian eskatutako quoruma betetzen dela egiaztatu ondoren. Dekano andrea izan da batzordeburua eta goian adierazitakoak bertaratu dira, aztergaien zerrendako puntu hauek lantzeko:

1. Aurreko akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

Batzarraren erabakipean jarri ondoren, onartu egin da 2022ko apirilaren 8ko Batzarraren akta, baldintza horietan.

2. Dekano andrearen txostena.

Hasteko, aipatu du ikastegiak bi astez itxiko direla abuztuan, energia kontsumoa eta gastua murrizteko asmoz. Zehazki, abuztuaren 15etik 28ra. Hala ere, zenbait zerbitzu orokor irekita egongo dira. Egun gauden azterketa garaiari dagokionez, gogorazi du COVID protokoloa indarrean dagoela oraindik: ikasleen azterketa online egiteko eskubidea dute posible izanez gero, edo aurrez aurreko proba atzera dezakete hamar egun geroagora arte. Aurreko urteetan bezala, zenbait ikasgela prestatu dira ikasleek ikasteko -4, 5 eta 7-. Masterren arloan, maiatzaren 14an amaitu zen izena emateko epea, nahiz eta plaza hutsak zituzten zenbaitetan Errektoreordetzak izena emateko epea astebetetz luzatu duen. UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Unibertsitatearen Plan Estrategikoa onartu du, eta gure Fakultatea gurea egiten hasi da esparru orokor horren barruan. 2022-2025 aldirako izango da, eta espero da batzar honi onartzeko aurkeztea datorren irailean edo urrian.

Azpiegiturei erreparatuta, bi kontu. Uztailean, plato zaharra ikasgela bihurtzeko lanak hasiko dira, eta COVID ikasgela zaharra (14.a) erabilera anitzeko ikasgela esperimenterik alternatibo bihurtuko da.

Gainerakoan, gaur, 31 da, hau da, erakunde ebaluazioari buruzko inkesta betetzeko azken eguna. Oraindik ere bete ez dutenak betetzera animatu nahi dira.

Bi ofimatika tailer eskaini dira AZPko langileentzat, eta IRLentzat eskainiko dira uztailean.

Aipatu du harro eta asebeteta sentitzen dela Batzarrari jakinaraztean beste sari bat jaso dela, *La Ría del Ocio* aldizkariarena. Ikastegiak 25 urtetik gora daramatza lanean argitalpen horrekin.

Azkenik, iragarri du graduazio ekitaldia ekainaren 14an egingo dela, familiarik gabe, Bizkaia Aretoko Mitxelena gelan, eta *streaming* bidez emango da. Aurten, gradu guztietan izena emandakoen errekorra lortu da: 253.

Ez denez zalantzarik galdetu ez galderarik egin, aztergaien zerrendako hurrengo puntura igaro dira.

3. 2022/23ko irakaskuntza eskaintza

Dekano andreak Alazne Ayestarán dekanordeari eman dio hitza; azken horrek eskaintzaren elementu nagusiak nabarmendu ditu. Onartu egin dute.

Dekano andreak hartu du berriro hitza eta espaziorik ez izateagatik eta ordutegien ugaritasunagatik sortutako arazoak nabarmendu ditu, are gehiago larritu dira bi plan elkarbizi direlako, zaharra eta berria.

4. 2022/23ko azterketen egutegia

22-23 ikasturterako egutegi hori aurkeztu da. Ez da zalantzarik egon eta ez da galderik egin, eta, beraz, baiespenez onartu da baldintza horietan.

5. GRALen irakaskuntza gidak 2022/23rako

Onartu egin dituzte.

6. 2022/23 ikasturteko egutegia

Dekano andreak organoaren erabakipean jarri du, eta aipatu du bi aldaketa daudela batzarkideei erantsitako agiriari dagokionez: Eguberrietako oporren hasiera eguna, Unibertsitatearen oinarrizko egutegiarekin bat, abenduaren 22a izango da, osteguna, hilaren 23aren orde, ostirala. Bestalde, Fakultateko jaia 2022ko abenduaren 5a izango da, astelehena. Onartu egin da aipatutako aldaketekin.

7. Gradu eta gradu bikoitzen 2022/23ko kudeaketa egutegia

Aurkeztutako baldintzetan onartu da.

8. Gizarte Komunikazioa Masterreko Batzorde Akademikoaren izendapena

Kide berri izandatu dira Simón Peña (batzordeburua) eta Koldo Meso eta Estefanía Jiménez batzordekideak.

9. Fakultatearen txostenak Carolina Fundazioarekin hitzarmenak sinatzeko 2022/23 ikasturterako

Batzordeak aldeko txostena egin du UPV/EHUren eta Carolina Fundazioaren artean hitzarmenak sinatzeko, azken horrek hauek emateko aipatutako ikasturtean:

- Beka bat Nazioarteko Ikasketak Masterreko ikasleei.
- Bi beka Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterreko ikasleei.
- Beka bat Multimedia Kazetaritza Masterreko ikasleei.

10. Azpiegiturak erabiltzeko baimena

Batzarrak Bizkaia Aretoko lokalen eskaera bermatu du 2022ko irailaren 15ean eta 16an "A code red for young people and the more than the human: ethical innovation to drive audacious change" jardunaldia egiteko.

11. Irakasleen plazak

Batzordeak jarraian zerrendatzen diren plazei dagokien eskaeren aldeko txostena egin du:

- Kazetaritza Sailak proposatuta: bi 11. eranskin eta bat 8. eranskin.
 - o 11. eranskina (TUC8/13362). UT ez elebidun osotik atxiki elebidun osora.
 - o 11. eranskina (CUC8/13362). UT elebidun osotik atxiki elebidun osora.
 - o 8. eranskina (AUP6L1-336-1): elkartu elebidun osora.
- Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Sailak proposatuta: bat 6. eranskin, bat 11. eranskin eta bat 8. eranskin:
 - o 6. eranskina: oso elebidun osoa.
 - o 11. eranskina (PAC8L21625): atxiki elebidun osotik agregatu elebidun osora.
 - o 8. eranskina (PAC8L21613): atxiki elebidun osoa.

12. Galde-eskeak

Ez da egin.

Lantzeko beste gairik ez dagoenez, dekanok andreak Batzarraren bilera amaitu du 10:55ean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren fede ematen du Leioan, 2022ko maiatzaren 31n.

Dekanoak O.E.
Ana Irene Del Valle

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea